

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Ebaluazio Diagnostikoa Euskal Autonomia Erkidegoan

Ebaluazio diagnostikoa zer den eta
beste 25 oinarrizko galdera

2008





SARRERA

Maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzaren Lege Organikoak (LOE) bere 21., 29. eta 144. artikuluetan ebaluazio diagnostikoa definitzen dituzten arauak, ezaugarriak eta eskakizunak ezartzen ditu, ikastetxeen eta hezkuntza administrazioen erantzukizunekin eta betebeharrekin batera. Ildo horretatik honela dio: *“hezkuntza administrazioen betebeharra da ebaluazio diagnostikoak beren menpean dauden ikastetxeetan garatzea eta kontrolatzea eta, baita ere, ikastetxeek ebaluazio horiek egoki gauzatu ahal izateko behar dituzten ereduak eta laguntza eskaintzea”*.

Urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak (EHAA, 07-XI-13) Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen du eta 36. artikuluan (*V. Kapitulua: Ikasleria, ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa*) era horretako ebaluazioak zehazten ditu, eta gure Erkidegoko zentsuko ebaluazio diagnostikoa diseinatzeko eta garatzeko kontuan hartu behar diren zenbait eskakizun gehitzen ditu.

Dokumentu honen xedea ebaluazio horren ezaugarriak jakinaraztea da eta prozesu horren inguruko funtsezko zenbait galderari erraz eta argi erantzun nahi die.

Dokumentua lau ataletan banaturik dago. Ataletako bakoitzean hurrengo gai hauei buruzko galderei erantzuten zaie:

- Ebaluazio diagnostikoaren helburuak eta ezaugarriak EAEn.
- Errendimendu-probak eta galdera-sortak.
- Aplikazio prozesua ikastetxean.
- Eraitzen aurkezpena.

Dokumentu honetan oinarrizko informazioa eskaintzen da. Gainerako informazio osagarria Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Laguntza-zerbitzuen bidez helaraziko zaie ikastetxeei.

Zer da ebaluazio diagnostikoa?

Ikastetxeen hobekuntzarako balio duen ebaluazio prozesua da; Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasle guztiek oinarrizko kompetentziak noraino garatu dituzten neurtzen du. Ebaluazioa proba eta testuinguruko galdera-sorta ezberdinek osatzen dute. Proba eta galdera-sortak berdinak dira ikasle guztientzat eta irizpide estandarizatuarekin ezarriko dira diru publikoaz finantzatutako ikastetxe guztietan.

Ebaluazioak nahiko informazio objektiboa eskainiko dio ikastetxe bakoitzari bere egoerari buruz. Informazio hori irakasleei, ikasleen familiei eta oro har hezkuntza sistema osoari helaraziko zaie. Informazio horrek, ikastetxe barneko datuekin osaturik, hobekuntza-prozesuak abian jartzeko aukera eskainiko du.

EBALUAZIOAREN HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK

1. Zergatik planteatzen da ebaluazio diagnostikoa?

Ebaluazio mota hori hezkuntzaren kalitatea hobetzeko formula eraginkor bezala erabiltzen ari delako gure europar ingurunean herrialde askotan. Derrigorrezko hezkuntzaren testuinguruan ikasleen kompetentzia-mailak eta ikastetxeen egoera, eta oro har hezkuntza sistema osoarena, ezagutu beharra gero eta premia-agoa da. Eta egoera hori ezagutzeko modu bakarra aurretiaz balioztatutako prozedura homologatu eta garde-nak eta irizpide komunak erabiltzen dituzten ebaluazio prozesuak dira.

2. Zergatik egiten da Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan?

Ebaluazio horren izaera diagnostikoa eta prestakuntzazkoa kontuan izanik, komenigarria delako derrigorrezko bi etapen erdiko aldean kokatzea, bi ikasturte bukatu aurretik. Horrela, ebaluazioaren emaitzak eta informazioak arazoak hautemateko erabili ahal izango dira eta, horren ondorioz, curriculumak eta ikastetxe bakoitzeko ikas eta irakats prozesuak egokitzeko eta beharrezkoa denean ikasleei laguntza neurriak eskaintzeko.

3. Zein da ebaluazio diagnostikoaren helburua?

Ebaluazio diagnostikoak helburu bikoitza du: alde batetik, eskolak bizitzarako zein mailataraino prestatzen duen baloratzea eta

ikasleak hiritar bezala duten eginkizuna betetzeko zein punturaino dauden prestatu-rik ezagutzea; bestetik, ikastetxeei beren irakaslana hobetzen laguntzea eta adminis-trazioari hezkuntza-politika bideratzeko in-formazio baliagarria eskaintzea. Ebaluazio diagnostikoak ikastetxeentzako izaera **prestatuntzazkoa** eta **orientatzailea** du eta izaera **informatiboa** familientzako eta hezkuntza komunitatearentzako.

4. Zeintzuk dira Euskal Autonomia Erkidegoko ebaluazio diagnostikoaren ereduaren ezaugarriak?


Gure erkidegoan egingo den ebaluazio diagnostikoak hurrengo ezaugarri hauek izango ditu:

- Ebaluazioaren **atal bat ikastetxez kanpoko** izango da, Hezkuntza, Unibertsitate

eta Ikerketa Sailaren ardurapean izango dena. Ikastetxez kanpoko langileek ezarriko dute atal hori. Ikastetxeek, atal horrez gain, borondatezko beste diagnostiko ebaluazio prozesu batzuk garatu ahal izango dituzte, ikastetxearen barnekoak, kanpoko atalaren osagarri gisa edo bere hezkuntza-proiektuaren oinarrizko alderdiak garatzeko.

- Ebaluazioaren **emaitzak ikaslearen mailaraino helduko dira**; hortaz, ikastetxeei eta familiei banan-banako informazioa emango zaie. Horrek ikasle bakoitzaren arazoak hautemateko aukera eskainiko du eta baita banan-banako konponbideak bideratzen lagunduko ere.

- Ebaluazioak ikastetxeei **luzetarako konparazioak egiteko** aukera eskainiko die, emaitzen bilakaera denboran zehar aztertuta ahal izango baitute, eta ez ikasturte bakoitzean bakarrik.




5. Badu ebaluazioak zerikusi zuzenik ikastetxe bakoitzean irakasten diren edukiekin?

Curriculumean garatzen diren konpetentzie-tan, eta beraz edukietan, oinarrituta badago ere, ebaluazioa ez dago ikastetxe bakoitzean lantzen diren edukien garapen-maila zehatzari loturik. Ikasleek eskuratu dituzten ezagupenen sakontasuna baloratu beharrean, ikasleek eza-gupen horiek egoera ezberdinetan egoki hau-tatzeko eta erabiltzeko duten gaitasuna eba-luatu nahi da.

Ebaluazio hau, jakina, ez da bukaerakoa eta ez du inolaz ere ordezkatzeko irakasleek egi-ten duten curriculum-ebaluazioa. Aitzitik, curriculumari lotuago dagoen ohiko ebalua-zioaren osagarria da, ikasleei buruzko kan-poko informazioa eskaintzen baitu. Gero, informazio hau ikastetxeak interpretatu be-harko du bere testuingurua kontuan hartu-rik eta berak erabakiko du informazio hori nola erabili.

6. Zenbat aldi ditu ebaluazio diagnostikoak?

Ebaluazio diagnostikoak prozesu konplexu bat abian jartzea eskatzen du, pertsona ko-puru handiak fase ezberdinetan eta helburu eta erantzukizun ezberdinekin parte hartzea baitakar. Hurrengo grafikoan ikusten denez, hiru aldi daude:



- a) *Prestatze eta sentsibilizazioko aldia* (ikasturteko lehen eta bigarren hiruhilabetekoetan): helburua hezkuntza komunitateari informazioa ematea eta ebaluazioa prestatzea da.
- b) *Aplikazio aldia* (ikasturteko bigarren eta hirugarren hiruhilabetekoetan): proba ikastetxeetan ezartzen da, emaitzak aztertzen dira eta txostenak hasten dira.
- c) *Hobekuntza aldia* (hurrengo ikasturteko lehen hiruhilabetekoan): datuak jaso ondoren hobekuntza prozesua hasten da ikastetxeetan.

7. Nork hartu behar du parte ebaluazioan?

Euskadin diru publikoarekin finantzaturako ikastetxe guztietan LHko 4. mailan eta DBHko 2. mailan eskolaturik dauden ikasle guztiek hartu behar dute parte. Ebaluazioaren prozesu orokorrean finkatzen diren baldintza eta denbora berdinetan egin beharko dituzte probak ikasle guztiek. Horretarako, ikastetxe bakoitzak bere ikasleek zerrendak eta ezaugarriak sartu beharko ditu ebaluazioarako sortutako zerbitzarian, Hezkuntza Sailburuordetzak hartuko duen *Erabakian* finkatzen diren irizpideen eta prozeduraren arabera.

8. Hezkuntza premia bereziko ikasleek ere egin behar dituzte probak?

Curriculumaren egokitzapen indibiduala (CEI), edozein izanda ere, duten ikasleek ere hartu behar dute parte ebaluazio prozesuan; hala ere, prozesu orokorraren baldintzak ezarriko balitzaizkie, ikasle horien egoerak eta ezaugarriek probetako beren errendimenduan eragina izan dezakete. Beraz, bi egoera mota aurreikusi ditugu:

- Curriculumean sartzeko edozein mota-tako CEIa duten ikasleak (ikusmen, entzumen, mugimen edo antzeko urritasunak): ahal den neurrian, parte hartuko dute ebaluazioan, probak eta galdera-sortak egin ahal izateko behar dituzten egokitzapenak prestatu ondoren.
- CEI esanguratsu orokorra duten ikasleak: ikasle horientzat irizpide orokorren arabera ebaluazioa egitea ezinezkoa izango denez, ikastetxeak erabaki beharko du ikasle horiek zein baldintzatan egingo duten ebaluazioa.

9. Zein oinarrizko kompetentzia ebaluatuko da maila bakoitzean?

175/2007 Dekretuak finkatzen dituen 8 oinarrizko kompetentziak ebaluatu ahal izateko, ebaluazio aurrerakorreko eredu zikliko bat aukeratu da. Eredu horrek bi atal ditu,

bata **finkoa** eta bestea **aldakorra**. Atal finkoan oinarrizko bi kompetentziarik instrumentalenak sartuko dira eta ikasturte guztietan ebaluatuko dira; atal aldakorrean gainerrako kompetentzia guztiak sartuko dira eta ikasturte bakoitzean haietako bat ebaluatuko da ziklikoki.

Kompetentzia bakoitza egitura horren arabera ebaluatzeko aurreikusten den egutegia hurrengo taulan azaltzen da.

Hortaz, 2008-09 ikasturtean ebaluazio diagnostikoak hurrengo kompetentzia hauetan jarriko du arreta: Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia euskaraz eta gaztelaraz, Matematikarako kompetentzia eta Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia.

10. Ikasturteko zein garaitan egingo dira probak?

Proben aplikazioa ikasturte bakoitzeko martxoan eta maiatzean artean egingo da, ikastetxeetan egiten diren ohiko ebaluazio akademikoekin edo amaierakoekin oztoporik ez sortzeko. Data zehatzak Hezkuntza Sailburuordetzaren erabaki baten bidez finkatuko dira urtero.

11. Nola antolatuko da ebaluazio diagnostikoa ikastetxean?

Ebaluazio diagnostikoaren koordinazio batzordea eratuko da ikastetxeetan

ikasturte bakoitzaren hasieran. Batzordea ikastetxeko zuzendariak, ikasketa buruak eta ebaluatuko den irakasmila bakoitzeko tutore batek gutxienez osatuko dute.

Koordinazio batzorde horren eginkizunak honako hauek dira:

- Ebaluazio prozesua ikastetxean planifikatzea eta koordinatzea irizpide eta arau orokorren arabera.
- Hezkuntza komunitateko kide guztiei ebaluazio diagnostikoaren zioari, helburuei eta ezaugarriei buruzko informazioa ematea eta horretaz sentsibilizatzea.

- Proben eta galdera-sorten aplikazioa egingo duten kanpoko pertsonen laguntzea eta haiekin elkarlanean aritzea.
- Ikastetxeko zuzendariari ikastetxeko emaitzen txostenak aurkezten eta Hobekuntzarako plana egiten laguntzea.

ATAL FINKOA	ATAL ALDAKORRA	
	IKASTURTEA	OINARRIZKO KOMPETENTZIA
• Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia euskaraz.	2008-09	<i>Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia.</i>
	2009-10	<i>Gizarterako eta hiritartasunerako kompetentzia.</i>
• Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia gaztelaniaz.	2010-11	<i>Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko kompetentzia.</i>
	2011-12	<i>Ikasten ikasteko kompetentzia.</i>
	2012-13	<i>Giza eta arte-kulturarako kompetentzia.</i>
• Matematikarako kompetentzia	2013-14	<i>Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia.</i>
	2014-15	<i>Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia.</i>
	2015-16	<i>Gizarterako eta hiritartasunerako kompetentzia.</i>

ERRENDIMENDU-PROBAK ETA GALDERA-SORTAK

12. Nolakoak izango dira errendimendu-probak?

Oro har, ikasleek koaderno bat izango dute kompetentzia bakoitzerako eta galderei aparteko erantzun-orri batean erantzun behar izango diete. Koadernoek item kopuru zehatz bat izango dute eta itemak era ezberdinetakoak izango dira. Emaitzen arteko konparazioak egin ahal izango direla bermatzeko item gehienak komunak izango dira. Probak paperean eta arkatez egingo dira, beste euskarri batez egiteko aukerarik ez dagoen bitartean.

13. Nolako galderak sartuko dira probetan?

Formari dagokionez, galderak itxiak (aukera anitzekoak) eta erdi-itxiak izango dira. Ikasleek aukera ezberdinen artean hautatu behar izango dute. Erantzun laburreko item irekiak ere izango dira proba guztietan (grafikoak egin, hutsuneak bete, eragiketa matematiko bat egin...). Bestaldetik, Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia probetan, bai euskaraz bai gaztelaniaz, ikasleek luzera ezberdinetako hainbat idazlan egin behar izango dituzte.

Edukiari dagokionez, item gehienak eguneroko bizitzako arazo garrantzitsuen ingurukoak izango dira, egungo gertaerei edo ikasleen inguruneari eta interesei lotuak eta ikasleen adinerako egokiak. Arazo horiek egoera errealean isla izango dira eta ikasleek arazoak konpontzeko beren ezagupenak eta trebetasunak erabili behar izango dituzte.

14. Zein hizkuntzatan erantzun behar dute ikasleek errendimendu-probetan?

Probetako hizkuntzaren efektuari buruzkoa hasierako oinarrizko informazioan azalduko zaie ikastetxeei. Informazio horretan oinarriturik, ikastetxeak erabakiko du zein hizkuntza erabili, hurrengo alderdi hauek kontuan izanik:

- Ikastetxeak bere erabakia idatziz adierazi beharko du ikasturte bakoitzean.
- Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia probetan izan ezik, ikastetxeak hizkuntza bat aukeratu ahal izango du aplikazio osorako edo hizkuntza aldatu ebaluatzen den kompetentziaren arabera.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak probaren hizkuntzari dagozkion egoera ezberdinetako datu orokorrak emango dizkie ikastetxeei, beraien arteko konparazioak egin ahal izateko eta hobekuntzarako ondorioak ateratzeko.

15. Zergatik erabiltzen da proba bera ikasle guztiak ebaluatzeko?

Ekitate printzipioagatik. Ikasle guztiek garatu behar dituzte curriculumean zehazten diren oinarrizko kompetentziak. Probak estandarizatuak dira, hots, berdinak ikasle guztientzat, ikasleek lortutako maila ezaugarri pertsonalak edo sozio-familiarenak kontutan hartu gabe ezagutzeko beharra baita. Mailakatutako proba ezberdinak egitea ekitatearen printzipioaren aurka joango litzateke eta bereizkeria izango litzateke, ikasle bazuengandik nolabait emaitza apalagoak esperoko balira bezala. Ikasle guztientzako kalitatea eta berdintasuna lortu nahi dira eta horregatik erabiltzen da proba bera.

16. Nolako galdera-sortak erabiliko dira eta nolako informazioa bilduko dute?

Bi motatako galdera-sortak izango dira: bata ikasleentzako, ikasturte guztietan erabiliko dena, eta besteak hezkuntza arlo ezberdinentzakoak (zuzendaritza, irakasleak, familiak). Arlo horietako berariazko informazioa biltzea beharrezkoa izango denean bakoitza erabiliko dira galdera-sorta horiek. Informazio hori oso lagungarria izango da emaitzak azaltzeko eta testuinguruan kokatzeko eta, alde batetik ikasleari eta familiari eta, bestetik, ikastetxeari dagozkien aldagaiei lotua dago.

APLIKAZIO PROZESUA IKASTETXEAN

17. Nork egingo du proben aplikazioa?

Proben eta galdera sorten aplikazioa ikastetxeetan horretarako bereziki izendatutako ikastetxer kanpoko pertsonak egingo dute. Lehiaketa publiko baten bidez kontratatzen diren pertsona horiek dagokien ikastetxeekin harremanetan jarriko dira aplikazio prozesu osoa prestatzeko, irizpide eta baliabide komunak eta estandarizatuak jarraituz. Ebaluazio prozesu guztiaren kalitate kontrola Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak egingo du.

18. Zenbat egun iraungo du aplikazioak ikastalde bakoitzean?

Aplikazioa bi egun jarraitutan egingo da goizez, eta egun bakoitzean hiru ordu iraungo du gutxi gorabehera. Egun bakoitzean, ikasleek bi errendimendu-probari erantzun beharko diete eta bien bitartean gutxienez 20 minutuko atsedenaldia izango dute. Aplikazioaren bi egunetako batean galdera-sorta bati ere erantzun beharko diote. Euskarazko eta gaztelarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia probak goiz ezberdinetan egingo dira. Probek iraupen ezberdina izango dute bi etapetan, hurrengo taulan azaltzen den bezala.

19. Ikastetxe bateko ikastalde guztiek egun beretan egin behar dituzte probak?

Etaparen bereko ikastalde guztiek egun beretan egin beharko dituzte probak, egitura eta prozedura bereberekin, ikasle guztiek probak baldintza berdinetan egiten dituztela bermatzeko. Ikastetxe batek derrigorrezko bi etapak baldin baditu, bi etapetako aplikazioak egun ezberdinetan egin ahal izango dira.

20. Nola zuzenduko dira probetako galderak?

Aukera anitzeko galdera itxien erantzunak automatikoki zuzenduko dira, informatika programa baten bidez. Era ezberdinetako galdera irekien erantzunak (ikus 13. galdera) ikastetxez kanpoko pertsonen

zuzenduko dituzte. Pertsona horiek horretarako bereziki kontratatuko dira lehia-keta publiko baten bidez eta berariazko prestakuntza izango dute. Zuzenketa itsua egingo dute, hots, anonimoa, informatika programa baten bidez eta beren lanari buruzko isilpekotasuna gorde beharko dute.

21. Zein izango da ikastetxearen eginkizuna aplikazioa egiten den bitartean?

Ikastetxeko zuzendaritza taldeak, ebaluazio diagnostikoaren koordinazio Batzordearen bidez, proben antolamendua erraztu eta garapenean lagundu beharko du. Horrekin batera, ebaluatzen diren ikastalde guztien proba guztietan ikastetxeko irakasle bat egotea bermatu beharko du, ikasleen por-

taera zaintzeko, atsedean denboraz arduratzeke eta sor litezkeen arazoak konpontzeko.

EMAITZEN AURKEZPENA

22. Noiz eta nola jasoko dituzte ikastetxeek beren emaitzak?

Ikastetxeek ebaluazioaren hurrengo ikasturteko lehen hiruhilabetekoan jasoko dituzte. Ikastetxe bakoitzak berari dagokion informazioa pasahitza baten bidez jaitsiko du diagnostiko ebaluaziorako berariaz sortuko den zerbitzaritik. Behin betiko datuak jaso ondoren, zonaldeko ikuskaritzak, Berritzeguneko erreferentziako aholkulariarekin batera, eba-

luazioaren koordinazio batzordeari bilera batera dei egingo dio datuei buruzko hasierako azalpena emateko. Hortik aurrera, ikastetxearen hobekuntza prozesuen aldiari hasiera emango zaio.

23. Zein motatako txostenak egingo dira ebaluazioaren ondorioz?

Hiru mota ezberdinetako txostenak egingo dira:

- **Ikaslearen txostena:** ikasle bakoitzak ebaluatutako konpetentzia bakoitzean lortu duen errendimendua adieraziko du eta, baita ere, taldearen emaitzekiko konparazioa eta interesgarriak izan daitezkeen beste zenbait datu eta aldagai. Informazio hau ikastetxeak helaraziko die familiei.
- **Ikastetxeko txostena:** datu orokorrak eta taldekakoak zehaztuko ditu eta testuinguruko aldagai ezberdinekin duten korrelazioa (adibidez, indize sozio-ekonomikoa eta kulturala edo etxeko hizkuntza). Halaber, ezaugarri berdintsuko ikastetxeetako emaitzekiko konparazioa ere eskainiko da.
- **Erkidegoko txosten orokorra:** Euskal Autonomia Erkidegoan konpetentzia ezberdinetan izandako datu orokorrak adieraziko ditu, zenbait aldagaiekiko korrelazioarekin batera.

KONPETENTZIAK		LHko 4. maila	DBHko 2. maila
Hizkuntza-komunikazioa	Euskara	60 minutu	75 minutu
	Gaztelania	60 minutu	75 minutu
Matematikarako konpetentzia		45 minutu	55 minutu
Zientzia-, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzia		45 minutu	55 minutu

24. Nolako emaitzak hartuko dira kontuan ikastaldeko eta ikastetxeko batezbestekoak kalkulatzeko?

Ikastetxe eta ikastalde bakoitzeko emaitzen batezbestekoak egiteko proban parte hartu duten ikasle guztien emaitzak hartuko dira kontuan, hurrengo kasu hauetan izan ezik:

- Norberaren curriculum egokitzapen esanguratsua duten ikasleak, ebaluazio prozesu orokorrean parte hartu ezin dutenak.
- Probak egiten diren momentuan euskal hezkuntza sisteman eskolaturik urtebete baino gutxiago daramaten ikasleak, proba ezberdinen hizkuntza ezagutzen ez badute.

25. Nola bermatuko da emaitzen isilpekotasuna?

Ebaluazioan ikastetxeei eta ikasleei buruzko informazio garrantzitsua erabiltzen denez, ezinbestekoa da datuen isilpekotasuna eta babesa bermatzen dituen sistema bat finkatzea. Gainera, legeak espresuki debekatzen duen ikastetxeen sailkapen sailkapenik ez da egingo. Horretarako bi sistema erabiliko dira:

- a) Ebaluazioan erabiliko den informazio guztia kodetuta egongo da, izenak identifikatzea ezinezkoa izan dadin.
- b) Informaziorako sarbide mugatua ezarriko da, erabiltzailearen kodeak erabiliz.

Hezkuntza Sailburuordetzak eta ISEI-IVEIk bakarrik izango dute datu guztietarako sarbidea. Gainerako erabiltzaileek informazio partzialera bakarrik izango dute sarbidea, betiere kodetuta. Ikastetxeko zuzendaria arduratuko da berezko datuen zaintzaz.